



Efoma. Batikano'lik.

Aita Santua'k Hayes kardenal eta New York'eko Gongotzaña, bere Ordeleri zentau dau datofen Iraia'n Kleveland'en ospatuko dan Amerikar Eukaristi batzafean. Batzar au Iraia-23 asiko da ta iru egun iraungo dau.

—Ila onen 9'n il zan Lafontaine kardenala eriotzeagaz, kardenalak 49'n gelditu dira 24 italtar eta 25 beste la-terfitakoak. Utsik dagozan tokiak 21 dira.

—Eleiza ta yakidia beti dira aizkide ta Aita Santua'k alegin gustiok egiten ditu auferapenai indafa emoten. Ointxe bertan Castel-Galdolfo'n ortzizki landola (observatorio)an bigafen kupulea egiten diardu. Bertan urutikuskin edo teleskopio andi bafi bat ipiñiko dabe 600 milimetroko espilua dabena ortzeko argazkiak atarateko. Ointxe dabiz ipinten eta 12 tonelada ditu urutikuskin bafi onek. Aita Santua'k bere udaldia igaroteko yoan daitenean onetsiko ditu.

Strasburgo'ko Eukaristi-Batzafa.

Izugafiro lan egin dabe gertatzen eta edefa izan da benetan. Eri gustiak alkafen leyan gertatzen lan egin dabe, eta bertako amasei pafok k bakoitzak ibildeuna ibili bear izan dabon 200 metro bide apaintzeko asmoa artu eban. Iru kilometroan ibildeuna ibili da, eta zelai eder baten 200.000 lagunentzako toki edefea eleizkizunik zoragafienak egin ziran. Eguenean 50.000 umen yau-nartza, eta egin eben eskintza begikoe-netariko izan zan. 300 gari-zofo, bakoitza kilo bat ingurukoa umeak eskini ebezan, Eukaristi ikur lez, eta gustiz bildu ziran zofoak 1.300 izan ziran. Aita Santua'ri opaldu eutsen gogo-gai eskintzaz batean. Benetan edefa asmo ori. Azkenengo egunean len aitatu dogun zelayan bertan, Maglione, agur-gafi ta Aita Santuaren Ordeleri Paris'en danak yaupa abestu eban. Rémond eta Stteffert agurgariak itzaldiak ifatizkiñez emon ebezan. Afatsaldean ibildun zoragafi bat egin zan. Eukaristi Batzar oneri amai ona emonaz. Ufengoan, Y. I., zertzelada batzuk geyago emongo ditugu.

Mafuekos'en katoliko lanak.

Pantzetafen ardurapean dagon Mafuekos aldean, pantzetzakafak lan edefa egin dabe. Egunerik egunera eleiza bafiak egiten diardue, eta ointxe Fedala txukun bat egin dabe. Eta aufera doazala ikusteko zenbaki onek dira naiko: 1908'n 5 eleiza ziran, 1912 n 7; 1927 n 39; 1933'n, 105; 1935'n 158. Oneitatik 54 eleiza andiak, 36 eleizatxoak, 14 beinbehekoak, 4 egiten eta 50 eleizkizun eta kistar ikasti aretoak. Lan edefal..

Zifiste batasnera.

Egizko Eleizagandik aldentuta bizi diran Sortaldeko zismatikoen artean, begiak zabalduez doaz, zenbaki oneitan ikusi geinkenez. 1934'n katolikoko biurtu diranok 25.000 izan dira. Talderik andiena 10 000 yakobitar, Ivanios ta Teofilo oraintsu katoliko egin ziran Gotzañen zabalkunde-lanez. Sortaldeko taldeen artean eten barik Eleiza Ama Deunaganako yoerea ikusten da. Slabia'tafak 9 125, Malabartafak 2.279, Koptotafak 2.147, Siria'n 850, Melkitafak 523, Etiopia'n 400.

Polonia'n taldeka biurtu dira. Eta egunokaz, Buenos Aires'ko Nikola Deunaren eleizan 25 gaste yapondar bateatu ditue.

Berlin'go Gotzain bafis.

Berlin'go Goterkia ointxe bost urte ipiñi eben. Afezkeroko Gotzain bi bertan il dira, eta irugafena ointxe izentau dabe. Urte gogofak izan dira Berlin'go Gotzaintzat eta ez da afitzekoa, atsekabez be, osasuna galtzea. Orain arteko biak Schreiber eta Bares agur-

gariak kementsu Eleiza'ren aldez yokatu dabe hitlertafen basatikerien aurka. Oin izentau dabena Konrad von Preysing agurgafia da, orain arte Eis chstatt'eko Gotzain izan da. 1880'n yayo zan. Andikien artekoa da. Lenen lege-gizon egin eta gero Prusia'ko Ordeleritzan lan egin ondoren, abade-tzako deya somau eta ikasketak egin ondoren 1912'n abadetza artu eban. Izlari sutsu ta bikaña da, eta Berlin' dafak atsegifnez izentatze au artu dabe. Aldi estuetan eldu da eta kementsu yokatu bearko dau, katoliko eskubideen alde; baña gizon yekintsu ta kementsu danez, eta asko ikusitakoa, arazorik astunena egokiro ebartziko dituala itzaroten da.

Efex izugafi bat emakume katolikoen Bazkuntzaf.

Emakume katolikotafen Bazkun gustiak etxe baten biltzeko asmoaz, Txikago'ko emakume Bazkunak asmo begikoa artu dabe. «Illinois club for catholic Women» Bazkunak amasapl oneko etxe izugafi bat aloguan, efantan, artu dau, bertan Txikago ta inguruko emakume katolikoek Bazkun gustiak batuta lan egin dayen. Etxe au 1926'n egiña da eta 4 miloi dolar kosta zan. Mundelein kardenalak asmo au ontzat emon dau eta eralben bafi ofen zuzendari, bere Gotzain laguntzale Sheil agurgafia izentau dau.

—Ipar-Amerika'n opor-aldian be geldi ez dagoz. Udaldiko ikastaroak ikastetxeetan, batez be bigafen mañakotan, eraldu ditue, eta aurten orain arte 124 ikastetxe dira ikastarook emoten dituenak. Izan be opor utsa alper usañekoa izaten da.

Beljika'ko Katoliko-Emakume-Batzafa.

Beljika'ko emakume langile katolikoek alkartasun Batzak urteroko batzafa Erakusketako Yauregian egin dau. Van Roey kardenala bertan izan da, eta Beljika gustitik 3.000 ordelari bildu ziran. Gizarte-auzian gorengo mañan lan egiten dabon askoak bertan izan ziran. Batzafeko gaya, gaurko gizartean emakumeak dauken egin-beafa izan zan. Iru andereño ta lekai-me batek itz egin eben. Azkenean, Van Roey kardenalak itzaldia egin eban emakume Batza onein lan edefa goraldiaz. Kardenalak esan eban emakumeak ez dabela zuzenez tarteko izan bear politikako buruketan, baña zeafetara lan eginda eragipen izugafia daukela. Bere sendiaren ardurea lelen-go izan bear dau, sendi onean seme onak asi ezkeroko, gizartea ona izango da-ta.

Alemania'n gero ta txafago.

Gaurko bidetik agintariak yafaitzen ba-dabe, alemandar katolikoak gofiak ikusi bearko ditue. Hitlertafak, euren abertzalekeriaz buruak nastuta, afe-an aurkitzen dabon dana zapaldu gura dabe. Lenengotan, Eleiza Katolikoa aintzat artu ta bere asmoak aufera eroateko azkatasun osoa izango ebala E'oma'gaz egindako Itunbanean autor-tu eben. Oin, bafiz, dana galerazo dabe. *L'Osservatore Romano*'k, alemandar agintariak Itunbenaen aurkako gauza asko egiten dabela diño, eta afezkeroko be, Goering gudalburuak emon dabon agindua benetan baltza da. Abadeak, ezer latefien aurka egin ez gañera, beste edozein latefi mofoi lez laguntasuna emoteko eginbeafa ei dabe. Eta Eleiza'ren aurka garbian doazen legeak? Ederto izango litzake latefikeriak Eleiza'ren eskubide gustien gañetik abadeak eurak ipiñi bear ba'lebez! Orixe da edozer eskatzea. Ofez gañera izpafingi katolikoak zeregifnik ez dabela ta gastedi katolikoak be sakabanatu egin bear dirala esaten asartzen da, gusti au Itunbenaen aurka garbi egon afe. Benetan ya-

IZPARAK NAPAÑO

Iruña.

Ari erauntsi egin bazuen egin bazuen egin, otzak gaude; iparaizea nagusituez geroz ozkiro baño eder. Ala ere, jai usañak irauten; igandean zezenek befiz ere.

Asperturik, leer eginik zaudela usta ta, orañik izaki zerbeit, sakeletan.

Eldu den ileko leenengo eguna Loyola'ko jaiak izaki eta Iruñe'tik ere zenbaitzuek jai gogo dute, izenak eman dituzte bi autobus betetzeko. Goizeko sei terditan atera gogo dute eta elizako jaiak bukatu ta eguerdian Zarauz'a itzuli gogo dute bazkariz.

Aufien jai uni asmo berezi bat emandite Jondoni Inaki'ren gorasafe gisaz.

Juan den ostiralean, Jondoni Niko-les elizan, emezortzi urteko aleman mutil bat katolikotu zen, spezpiku jaunaren izenean angio efetor jaunak bataiatu zuen; biaramunean, Karmelitan bere leenengo jaun artea.

Juan den asteko befi lefiña, aufen artean «Parálisis infantil» delakoak joak siñitz bazirela, zion «Pensamiento Navarro» egunkariak.

Baño Gobernadore jaunak alde batetik, alkate jaunak bertzetik, sendakin guztieri befi galdeko ibili ondoan, efan dute argi eta garbi, ez dela iñor gaitza unekin; bakafik izandu dela eta ba direla bizpaurur aur gaxo, baño, daukaten eritasuna ez dela ofen garbi nabarmentzen, ala direla efa-teko.

Juan den ostirale egunean, Auzitegiko buruzagi befi Eduardo Divar jaunak, bere lekua artu zuen edo bete zuen; beste agintari batzu aitzinean zituela.

Aspaldidanik, Iruñe'ko ura xuurki darabilate, noiz nai urik gabe eta aldika adiarazten dute, urik ez dela izanen gauaz; baño beste batzuetan adiarazi gabe ura ekentzen.

«Exposition d' Horticulture» delakotik, eldu omen dire Iruñe'ra, ehun bat frantzes eta efiko etxera mezutu omen du, Baleztena jaunak, nola eldu diren eta batzafegiteko prest daizten.

Gure Orfeona ere, Donosti'ra eta Ondafabi'ra jai gogo du, eldu den Solbeziotan, Bruilaren zortzigafenean; kanta aldi batzu emateko eta bidenabar, itxaso-airea artzeko.

Gobernación delako ministroak; bandera, ikufak eta unelakoak zilegi ez direnak eramateko, argitu beafez, beste agindu bat eman du eta nik uste leen baño makufago utzi duela.

sarpen gogorpean aurkitzen dira gure anai alemandafak. Aldoguez gustiok lagundu bear geunskioe, otoiñez beintzat.

Abade gudari zafak bakearen alde.

Pantzetar abade gudari izandakoak, gogoz diardue bakearen aldeko lan edefean. Igazko udagoyenean, 19 latefitako gudari zafak bildu zituztean Lourdes'ko Ama'ren ofetan bakearen alde otoi egiteko. 80.000 inguru bildu ziran. Aurten be igazkoai dei ber-bera egiten dautse, igaz Lourdes'en lez aurten Aita Santua'ren ofetan batu daitezcan. Ori da bake-bidea!... M'tar G.

Orai, agintarien baitan utzi bearko, ikur edo bandera bat noiz den «suvers'vo» eta noiz ez den, berex-teko.

Gure agintariak ardura gaitz alde-tik ikusten gaitzkelakoz eztabaia izanen da bastefetan.

¿Nork daki ez ote diguten euskaraz itz-egiten debekatuko; izkuntza ere, ikur edefa bai ta?

Eldu den ostegunean Elizondo'ko jaiak.

Beste pilota partiden artean; bat rebotez elbu den igandeko; Ufuty, Loustalot, Lafaburu, Lázaro, Challa, mendiz arandiko: eta unaindikoak, Lemoine, Enbil, Rekondo, Etxenike, Eusebio.

Egun artan bertan joko garbian Enbil Urruty eta Lemoine-Loustalot, Santiago biaramunean izanen da pilota partida politena, luzean eta esku lafuz; Irurita eta Elizondo'koen artean.

Ederki zait, rebote eta luzean aritzea!

Iruñe'n ere asi dire diru galdeka, zine berezien laguntzeko.

«Hermandad del árbol y del paisaje» nor obeki bat adiarazi zuen, zuzitzen onak argitzeko eta goratzeko.

1.500 pezeta euskarazko lanendako, baño ez omen da bi euskar-lan baizik eta ek ez bide ziren sarigai, eta erdarazkoen artean banatu dituzte.

Egia efateko, nik ez nakien unelako sariak eskeindu zituztela.

Erdarazkoen artean saritu dituzte bi ian 250 pezetakin; sei lan 100 pezetakin eta zortzi 50 pezetekin.

«Apezgeiaren eguna» jaitu nai dute Ofeagan, eldu den igandean, egun ortan arata doazilakoz, misio-aldeko langileak ere.

Iruñako Eusko-gaztedikoak, jai den igandean Amayuf'en egon ziren, Oroigafi aren agefalde bat egiten.

Eldu den ostegunean «Adi»ko mendira doazi, biaramunean Ortanzurieta'ra eta ufengo igandean Izaba'ko Anie mendira.

LAREKO

Datofen astean, lanarte bat zeure eskuko dozula, atzefira ei zoaz. Ondo ibili, ba, «Lareko» maite ori. Atsedan-alditxo be ondo mezezi dozu zuk, bai Mila esker.

BIZKAYA

Mañari.

Juan-etoñiak.

—Elofio'ra jai zan Agife'tar Piesen, Ur-saltuko andera.

—Emen egun batzuk igarota, barrikuz jai zan Areatza'ra, Elexpuru'tar Bingen aberkidiaren emaztia.

—Abadiño'tik etofi zan Bizkafa'tar Agustine andera.

Eguraldija.

Ipar-axe gozuz eguraldi atsegina-gafija. Baso-ibilketa politak egiteko berebixikua.

Miren-alabak.

Gazteiz'era osteria eginda, igande afatsaldez igaro ziran emetik, Gernika-aldeko Miren-alabak. Neskatila begiko arelik, emetik-ziar, euzkerazko abesti politak abestuten jai ziran. Ori ondo; euzkotafak euzkeraz beti... Ogetabi belbiletan igaro ziran emetik.

Anboto'n.

Entzun dogunez, Anboto-mendijan egin dabien etxe bafijaren askundia edo «ingurazifioa» lengo igandez ospatu zan. Eta ori zala-ta, bertaratu ziran gustijai, garagardua ta laspel-ura, «grasiosia», duban emon ei-eutsoen. Lagun eskotxo eldu ei-ziran, eta «animaziñoz» ibili ei-ziran. Bai ba...

Soñuak-soñu.

Igaroriko igandez, Zornotza'n eta Otxandijo'n ospatu ziran efomerijetara gaste asko jai ziran afe, iñora jai barik gelditu gintzazanok ala-futeko, nok soñua jo etzan palta ixan. Or saspirak inguruan, iru dultzafari, zerutik jatsita lez danon pozgafi agertu ziran; eta bidia gora ta bidia bera, biribilketa politak jai ten ibili ziran, efiko ume gustiak inguruan ebezala. Polito ta ederto jai ten eben. Baltseorako ta dantza zikiñetarako eztanian, soñua dan edefa...!

Mugafa-aldeko dultzafari ofelik, lengo ilian «Urketa» mendijan egin zan efomerijan esku-zabalez sarituak jai ziran. Zorijonak, mutilak.



¿Itxasontzijen jabe ala Itxasketa-Bazkun bateko bazkide ete zara?

¿Zeure salkariak iñora bidaltzen ete dozuz itxasoz?

¿Zeure ekintzarako ala salostetxerako salkaririk itxasoz iñondik artzen ete dozu?

Izan leyezan afiskuetzaz, gitxi ordainduta, eskier ixan gura bazara; okefik, galtzerik dabentan, laster eta zuzen, yaotzuna artu gura badozu, zeure ogitukual.

“La Polar” Eskier-Bazkun

Bilbo'n Hurtado de Amezaga 8=Ufutzikifia 9797

eskierertu dagiezala agindu.

Bazkun au Euzko-Eriñan sortuaz ganera, geure Eriñan geyen itxas-afiskuak eskierertzen dauzadana.

Azuraz koipetsu (jazorkua).
Egun baten «Bostetxe» defuntuek «Patxi Cabrera» aberkidiari esan eutsen.

—I, Patxi, Santurtze'ra noz ue?
—Bijar nayuek—Patxi'k erantzun eutsen.

—Bijar uela? Ori dok tamala Etzi, eu baso-bete ardaugaz konbidetako ustiaz egon nok eta...

—Baso-bete ardau emoteko, etzira begira zetan egon eztauek; gaur be nik bardin artuko duat eta...

—Bai baña, etzi emotia pentzau dodan ezker, etzi biarko yok ixan. Gauza bat pentzau ta beste bat egin, eguno etxatak atsegin ixan niri ta...

MAÑARIKO

Eunak eta soñeko egfiak Zea'ar Erupin

Cenderia 15 Bilbao

Akorda.

Ospatu doguz Mariñe Deuna'tzazko efi-jai gorengak. Jai onen egifarrau osua azaldu biar ba'neuke, astero-ko onen ofi geyenan biar-ixenian aurkituko nintzake. Laburtuteko, ba, urtenenak aifatu-ta bestiak iruntsi egin biaflan naukazue.

Goizeko amafetan ixan-zan jaupa nagusija, eta onelango jayari yuakalez iru jauparigaz egindakua. Jaupa emon eban jauparija Laida'ko Onorio jauna ixan zan, eta berari lagundu eutsenak, Ibañangelua'ko Segundo jauna eta geure efiko txauburua.

Ibañangelua'ko abade-ikasleak abestu eben Pio Amargafen deritzan jaupera, eta txaueskian jafi zana, Merikaetxebafia'tar Joseba jauparija ixan zan.

Abeslarijak ondo egon ba-ziran, ezan egon txafago txaueskindari jauna. Txonitza Oar-arteta'tar Josu jaunak egin eban, geure ele txukunian. Mariñe Deuna'ren ziñopa-bixitza ondo azaldu euskun berak. Bai geure euzkera edefa ondo ezititsu ta mamintsu erabili bere espanetan. Gure belafijak adi be adi ziran, bere gaya ondo batuta sartun gura gendulako geure gogo be fuan.

Jaupa amafuta efiko mutil geste bik egin eben auzekua. J'esian egin be...

Afatsaldian ixan ziran gaste goguk eragiten dabezan kirol da jokaldi bafe egitekuak. Gerokuak enua aifa-

tuten EKIN'eko «artazijak» zofotz ibiliko diran ustea gogoratubaz.

Gomuteaz bakafik euzko gogua era gustijetan azkatasun-zalia dala, utz egingo neukelako, ezer azalduko ba'neu, euzko-gogo lotuban, «gora Euzkadi'ka jarteaz.

Ofatiño ezin txalorik ukatu ixango dauksagu geure txistulari jayuari. Eresi edefak eutzun doguz Efemon eta bere seme Angel'egandik. ¡Gora bai, zuek!

Efiko semerik asko ikusi doguz euren artekuen ondora jayak ospatuten etofifa. Danen ixenak agertutia gatx dogu; baña danen artian euzko idazle baten ixena ezin aifatu barik itxi daikegu. Albizuri'tar Nemesi Arteaga'ko «Beuzko» idazleak bere emazte ta afeba-ondokuagaz batera ikertu gaituz. ¡Ondo etofijak danok!

Ekandu zafari beria emonaz, bari-ku goizian Elantxobe'tafak Akorda'n ixan doguz. Goizian-goxetik egon ziran «Atxafe»'ko Kepa deunaren basotxonuan. Bertan Teran'dar Karmelo elantxobetar jaupari gastiak jaupera esanda, jatsi ziran goxalduten Akorda'ta. Abestija ta txistua ziran euren gogoko izkiuak. ¡Zueri be, goral!

«Bijotegi»'ko Efosario ta bere sendi ona egunokaz baltzezko ikusi doguz. Euren sendikoren bat Amerika aldian il-dalakua edo entzun dogu. Geure aldetik sendi gustijari atsekabian bijotzez lagunduten dau's'gu. OGOÑOPE

Oñetako ta puntozko gauzak
Ugari, onak eta merke
EUZKERAZ ITZ EGITEN DA

Bengoa'ar Mafias
Artekale, 1 eta 7 **BILBAO**

Legendika (Kanala).

Zigufa il dal
Gabikagogeaskoa'tar Jon Imanol (Zigufa) il da. Aldi asko ez dala berari entzun geuntsan: «bixitziaren zofa eriotzia dala» eta zor ori 90'gaf-en urtian ordaindu dau. Bere sendikoai nire samin-agufik sutsuena eta enparauai bere aldez otoi bat.

Udaldikoak.
Legenkika'n udaldija igaroten etofi dira:

Bilbao'tik, Basabe'tar Austin'en ematzia seme-alaba eta lobakaz.

Madrid'tik, Keskentze andria bere semiakaz.

Logroño'tik, Arbegi'n eguzki aldi-jak artzen, Luisa andria bere alaba-txuagaz.

Bilbao'tik, Abiña'n itxas busti-al-dijak artzen, Korta'tar Joseba Mirena eta Markiegi'tar Jon abeslari punte-ruenguenak. Ondo etofijak.

Ordua zan.

Entzun dodanez, Laida'ko ondar-tzan txinelak agertu dira euren suiz-kilu ta guzti. Tamalgafija zan bene-tan an jazoten zana. Begijak itxita be lotsatu egiten giñian andik igaroten. Ba-niñoian lengo baten, begijak erdi itxita *motoña* artzen eta bat-batlian lepuan joteñ nau lagun batek, dirautala: Txol Begijok idigizak! —Zer ba?—Ikusten dozak emen in-guruan dagozanak? Onek ez dozak Adan eta Eba'ren ondorengoak.—Zergaitik—Soñeko barik dagoz eta ez dira lotsatu be egiten! Idigi begi-jak, begitu eta jau bai tamalgafija! erantzuten dauzat: kristiñauak do-zak! —Kristiñau... k...? Neguko kristiñauak edo ixango dira. Eta jaguri esanda, iges egin eban, asunak topetan edo, soñeko bakuak uxatute-ko. Ni bafiz afituta gelditu nintzan, «neguko kristiñauen» bafirik entzutez be ez neukan da.

ELIZ-MENDI

Egufoia Joskolak

Lekellio'n Urutizkiña 63
Bermeo'n Urutizkiña 76
Edonungo eskariak egiten dira. Olikay onenak. Berebiziko artaziak

Erigoiti.

1848
Julian Marcelo de Ibaña zan mayordomu. Justiziakoak: Juan Luis de Lafagan, Alkate; Jose Maria de Monasterio, Franzisko de Itufi, Ferm'n de Añien, Ramon de Uribe, Dionisio de Barayazafa, Domingo de Itufi ta Juan Bta. de Otazua.

1849
Jose de Lafagan zan mayordomu. Londres'tik ekafi eben elexakoak eroateko farola. Arañak be erosi ziran.

1850
Juan Ildefonso de Guafotxena zan mayordomu. Aita Martin de Bess-

koetxea ekafi zan Bariku Guren egu-neko sermoia egiten.

1851

Juan Felipe de Erezuma zan mayordomu. Eskola-maixu D. Franzisko Jose de Guafotxena. Salobante'ko elexea bafiztuten ebizen. Muxika'ra eroan zituezan konfesonario bi jentea konfesetako, mixiñoyak egozan da.

1852

Fermin de Madariaga zan mayordomu. Madalen-goitik emoten eutsan Luno'ko elexeari eun da ogeta lau efeal amafenen ordez.

1853

Antonio de Zubiaga zan mayordomu. Alkate Lorenzo de Monasterio. Aurten aitauten da lenengoz Obis-paduko Boletina.

1854

Jose de Ibaña zan mayordomu. Or-ganu bafia egin zan eta zortzi mila efeal batu ziran eflan onetarako.

1855

Franzisko'de Ufufia zan mayordomu. Usperitza Elexalde etxe bafiak elexeari urtean ogeta lau efeal emon beafa eukan. Marcelo de Ibañan etxeak amar efeal.

1856

Juan Manuel de Andraka zan mayordomu. Tofeko erlojuan egin zitue-zan bafiztute batzuk. Elexatik urira-ko bidea zabalduko be bota zitue-zan sei zugatz. Iru mila efeal emon ebazan efiak Salobante'ko kanpaiak egiteko. Kanpai bafiak egin zituezan: Bi elexarako, irurogeta zazpi ta be-fogeta amaika afoakoak, eta beste bi Salobante'rako amazortzi ta ama-bost afoakoak, eta txiki bat Santi Kurutzerako. Egileak Sandandera'ko Nikolas de Hoya ta Jose de Tijera ziran. Amar mila ta piku efeal eralgi ziran.

1857

Domingo de Itufi zan mayordomu. Elexarako efopa bafi asko egin zituezan. Erloju bafia be ipiñi zan eta Pedro Rokez'ek egin eban organu bafia be amaitu zan, eta emon yakozan azkenengo sei mila efealak. S.

Eleiz - Jantzi ta urreginza A. Rui-Wamba

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Urutizkiña 14.238
BILBAO

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekale, 50 **BILBAO**

Ereño.

Zendokiz'era.
Ila onen ogetabian, Zendokiz izena daukon Gautegez - Arteaga'ko auzora izan giñian, eta an ikusitakua-gaz oso afituta geratu be, ba, geyenak edo danak ebiltzala deritzat alkafi oratuta dantzan. Beintzat alan esan euskuben, dantzan ebiltzazala. Guk andik alde egin genduan laster; baña egi bat esan biaflan aurkituten gara, egi au gafatza ba-da be: ni gixonezkua ba'nintzateke, enitekela ezkonduko modu ofetan dabizen nezkatilakaz. Nezkatiñen izenik be ija eztozula merezi esango neuke, ba, mutilak zer usteko ete dabe, gu emakumiok ain itxura txafian eurakin bustertuta ikustian? Biar ba-da, euro-ri lizunkerirako giñiak biztuten dabi-zan emakume galduak ete garien. Eta sinistu egizube, emakumiok, gi-zonezkua atzipetu eta zakelian dau-kien laurlekotxua kenduteko asmari-kua dala dantza ori. Oraintze gomuta dot «Otamendi»'k beren oraintsuan go idazkijan esaten ebana: gaurko gi-zonak, lotsarik ba'leukie, afika efitik atara biar leukiezala, esaten eban, moda txafak efira dakafezan emaku-miok gaitik, eta jez ete eban ezer esan gureko lapak atxian baño inkau-ago eginda, urdiak basatzen baño be iguingafijago dabilzan emakume ten-telok gaitik? Nik bayetz deritzat.

EMAKUME BAT

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK
AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n igali edo *fruta* ta basoko zugatzak, Landa, ta ortu - azijak. Zimaufak; ko-kuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskitunak. Ortu ta baratz-eredubak.

Abadiño.

Ibiltaldia.
Kistar-ikasbideko neskato-mutiko aldra batek belbil eder baten Marki-na, Ondafoa; Lekeitio, Gernika, Zor-notza ta Durango'tik ibiltaldi bat eginda etxeratu ziran. Goixean lan-

(4)

ALDEZKETA - GAYAK

(APOLOGETIKA-GAYAK)

KISTARA NAZ ¿ZER DALA-TA?

NABARIZTARA'k atondua.

Askotara dakigu Jaungoikua dana

(Jafaiakuna)

Kaltegafi utza dan gauzarik eztago, bafiz, obena ixan ezik; eta obena gixonak Jaungoikua'ren nai aurka jaukifen dau; Jaunak laketu baño eztauegifen, eta obenetik bertatik bestelango onaurki edo onurak eratoi.

4.^a Bixitz-azija gure ludi ontara beste ludi edo gaudiko beste lekubetatik etofi zala.

Er. ¿Nok egiztaue olakorik? Eta ori egija ixatekotan be, lenen-lenengo bixitz-azija Jaungoikuak erein biar, gaiiki bixigiak bixitz-azirik eratoi eztagike-ta.

5.^a Gixona matxango edo tximiñoakandik sortu zala, ta abere osuagotuba baño eztaue.

Er. ¿Zegaiñik ezta, ba, orain aberiakandik gixonik iñoz sortuten? Adimen-bako aberia adimendun

biurtzerik eztago; iñungo aberek gixa-gogua jades-terik bez.

6.^a Gixa-gofiiko biarkun lagirik eztagola.

Er. Ori guzura dana argi ta garbi dirausku gure bañunbiak, gixartian eztagozala be biarkun-lagi ori bañu-bañuban nabañuten dogu-ta.

Jaunagandiko biarkun-lagi ori ontzat artu ezik, indar-lagija baño besterik elegoke gixartian: indara lagi, beraz. ¿Olororik nok onartu?

7.^a Eñijak Jaungoikua ziñestutia jakiñezari, bil-duñari ta jauparijai zor yakela.

Er. Gixonik jakintsubenak be Jaungoikua ziñetsi ta autortu ixan dabe.

Bilduñak Jaungoikua ziñestia barik, ziñeste orek erazoten dau bilduñ gaiztoen bañunbian.

Jaupari edo abadiak baño lenagotikua da Jaungoikua dalako ustia, jaupalguak (abadetzak) uste ori bai'dau onari.

8.^a Ikusi elefekenik edestijak ezin daula egiztaue; eta ganera, Jaungoikua ulerkatza dala.

Er. Jaungoikua ikusi ezin danaren, bere egintza ikusgari askok argi ta garbi iragarten daukuba.

¿Jaungoikua, gure adimen aulak ulertu ezin daula-ta, ukatu? Guk ziara ulertu al ba'leukegu, elitzake Jaungoikua ixango. Ukatu ezin doguzan amaikatxu gauza eztozuz ondo ulertuten ludijon be.

URTZINGIAK. Gixon batzuri, Urtzi edo Jaungoiko'rik ziñesten ez ei-dabela-ta, *urtzingiak* deretxegu. *Ateo* ixena dabe erderaz urtzikeza edo ateismua aldezen dabenok.

Euretariko batzuk, Jaungoiko'rik ez ixatia gura leukielako, ukatu egifen dabe. Geyenak, oster, Jaungoikua bai-dala jakiñaren, ezpai'litzan bixi dira.

Jaungoikua'ren aurka diñarduben urtzingiak ¿eze-rezaren edo eztanaren kalte diñardubela uste ete dabe? Ori zorakeri goñija litzake, ba.

Urtzikezak ondoren negargarñjak eratoi biar: ez-piar ta loñaldijetarako pozbide oro gixonari kendu, onoiñen eta onbidiak ondatu, gixartian indara aginñari egin, eta abar.

Urtzingiak Jaungoiko'rik ziñetsi ez, edo ukatu egifia, arokerririk edo bijotz-usteletik sortu oi da.

«Jaungoikua eztaue beste iñok ukatu, ez ixatia gura leukenak baño» (Augustin leunak).

«Urtzingia, edo zoru da edo deungia» (Voltai-re'k).

«Jaungoikua ukatu egifia, itxukerija ta zorakerija da» (Bifor Hugo'k).

Balmes jakintsubak urtzingien kaltezko argibiderik onena ta ezezena sakelian ei eukan. Sakeleko gabeukatzak (erlojua) atara ta auxe esatia naiko eban; Gabeukatzak gabeukazgiña leixe, gaudijak gaudi egilia dan Jaungoikua diragar.

(Ufenguan Jaungoikua'ren bikaintasunetza)